

19. ALDIZKARIA - 2010ko otsailaren 10a

ERGOIENA

Ergoieneko Udalean harrera zibila arautzen duen erregelamendua. Behin betiko onespena

Ergoieneko Udalak, 2009ko azaroaren 26an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Harrera zibila arautzen duen erregelamendua. Hura 2009ko 155. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 18an. Jendaurreko epea inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe iragan denez, behin betiko onetsita gelditu da aipatu ordenantza, eta ondotik ematen da; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legean eman dion idazketaren arabera.

Ergoienean, 2010eko urtarrilaren 28an.-Alkatea, Tomás Andueza Elso.

HARRERA ZIBILEN ERGOIENeko UDALAREN ERREGISTROAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA

Harrera zibila zeremonia instituzionala da hiriko neska-mutikoak gizalegezko balioetan abiarazteko xedea duena, hala nola pertsonen duintasuna, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna, horiek guztiak adierazirik aita-amek balio horien aldera duten konpromisoaren bidez, herritar libre eta eskubide eta betebeharrei dagokienez berdin bihurtuko baitituzte.

Harrera zibilak izaera zibila, laikoa eta borondatezkoa du.

1. artikulua. Araubide juridikoa.

Harrera zibilen udal erregistroak izaera administratiboa du, eta arau hauek eta modu osagarrian eman daitezkeenek zuzenduko dute.

Erregistroan inskribatzeak ez du inoiz izanen egintzaren kalifikazio juridikorik; Ergoieneko Udalean egiten diren harrera zibilen egiaztapen administratiboa baizik ez da izanen.

2. artikulua. Xedea.

Erregistro honetan sarbidea izanen dute Ergoieneko Udalean egiten diren harrera zibilek, baldin eta erregelamendu honetan ezartzen den prozeduraren arabera eskatzen badira.

3. artikulua. Eskaera egiteko baldintzak.

Aita, ama edo tutoreek eskaera egin ondoan eginen dira inskripzioak, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

-18 urtetik behera izan behar dute izena ematen dutenek.

-Ergoienean erroldaturik egon behar dute gurasoetarik batek edo tutoreak eta adin txikikoak.

-Adin txikiko burujabeak badira, horren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

4. artikulua. Idazpenen edukia.

Idazpenetan eskatzaileen datu pertsonalak agertuko dira, baita inskribatu nahi den adin txikikoarenak.

Idazpenak liburu orokor batean eginen dira, orri zenbakatu eta zigilatuetan, eta beharrezkoa bada erregistroak hobeki funtzionatzeko liburu osagarri egokiak sortuko dira.

5. artikulua. Atxikipen organikoa.

Harrera zibilen udal erregistroa Ergoieneko Udaleko Idazkaritzaren mende egonen da. Zerbitzuaren arduradunek ospatzen den egunean aztertuko dute ekarritako dokumentazioa; halaber, erregistroak ongi funtzionatzeko prozedura egokienak proposatu ahal izanen dituzte.

Idazkari orokorrak zuzenduko du erregistroa eta inskripzioez fedea emanen, eta lan hori beste norbaiten eskutan uzten badu, harexek.

6. artikulua. Norberaren intimitatearen babesa.

Harrera zibilen udal erregistroan eskatzaile guztiak eska dezakete sekretuak izan daitezela egiten diren inskripzioak.

Erregistroan jasotzen diren datuen tratamendu automatizatua egiteko, adin txikikoaren guraso boteretza duten

pertsonen adostasuna beharko da, eta betiere, Udalak, egiten dituen guztietan, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoaren xedapenak hertsiki begiratuko dituzte.

Erregistro hau osatzen duten liburuak ezin izanen dira inola ere Udaletxetik atera.

7. artikulua. Doakotasuna.

Harrera zibilaren zeremonia doakoa izanen da eta Ergoieneko Udaleko alkatetzak ezartzen dituen egun eta orduetan eginen dira.

8. artikulua. Erregistroko inskripzioaren ondorioak.

Harrera zibilaren udal erregistroak ondorio administratiboak baizik ez ditu izanen eta egiaztatuko du haurraren harrera zibilaren zeremonia non eta noiz egin den.

Iragarkiaren kodea: L1001529